

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Azbarren (J) eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) hasierako onespina.**

Basauriko Udaleko Lurralde Politikako Arloko ordezkariak, maiatzaren 30eko 1858/2022 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuaren bidez, hasiera batean onartu zuen Basauriko Azbarren (J) eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB). Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Azbarren (J) areako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (HAPB) hasierako onarpena ematea. Natalia Abascal Ortega (Vivienda y Suelo de Euskadi, SA – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.ren izenean), aurkeztutako dokumentu teknikoari dago-kionez. Hasierako onarpen hori ingurumen-txosten estrategikotik ondorioztatzen denak baldintzatuko du.

Bigarrena: espedientea jendaurrean jartzeko epea irekitzea. Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratuko da, 20 eguneko epean, azken iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, bai eta udal honetako iragarki-oholean ere, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Espedientea interesdunen eskura egongo da Udalaren egoitza elektronikoan <https://www.basauri.net>.

Hirugarrena: Interesatuei ebazpen honen edukia jakinaraztea.

Basaurin, 2022ko maiatzaren 31n. — Alkatea